

AURREPROIEKTUA: \_\_\_/2018 FORU ARAUA, \_\_\_aren \_\_\_(e)koa, zeinaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudia egokitzen baita abenduaren 28ko 10/2017 Legeak Ekonomia Itunean eginiko aldaketetara.

lazko abenduaren 28an, abenduaren 28ko 10/2017 Legea onetsi zen; haren bidez, aldatu egin zen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsia; izan ere, lege horretan jaso zen Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2017ko uztailaren 19an hartu zuen lehenengo akordioa, zeinaren bidez aho batez itundu zen Ituna aldatzea, onesteko erabili zen prozedura berari jarraituz.

Aldaketa hauek behartzen dute zergak arautzen dituzten foru arauak aldatzera, haien edukia Ekonomia Itunaren idazketa berrira egokitzeko; aldaketa horiek, gainera, Ituna aldatzen duen Legeak dituen ondorio berak izango dituzte.

Hori horrela, dagozkion egokitzapenak egiten dira foru arau hauetan: 11/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa; 12/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoa; 4/2015 Foru Araua, martxoaren 25ekoa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa; 7/1994 Foru Araua, azaroaren 9koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoa; 9/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, Kreditu-entitateetako Gordailuen gaineko Zergari buruzkoa; 7/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, Joko-jardueren gaineko Zergari buruzkoa, eta 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa.

Sozietateen gaineko Zergari dagokionez,

ANTEPROYECTO DE NORMA FORAL \_\_\_/2018, de \_\_\_ de \_\_\_ por la que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia a las modificaciones introducidas en el Concierto Económico por la Ley 10/2017, de 28 de diciembre.

Con fecha 28 de diciembre del pasado año, se aprobó la Ley 10/2017, de 28 de diciembre, por la que se modifica el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, recogiendo el acuerdo primero de la Comisión Mixta del Concierto Económico de 19 de julio de 2017, que convino por unanimidad su modificación con arreglo al mismo procedimiento seguido para su aprobación.

Estas modificaciones obligan a realizar cambios en las Normas Forales reguladoras de los impuestos a fin de adecuar su contenido a la nueva redacción que presenta el Concierto Económico, cambios que tendrán los mismos efectos que la Ley por la que se modifica el mencionado Concierto.

Así, se introducen las adaptaciones pertinentes en las siguientes Normas forales: Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, Norma Foral 12/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de No Residentes, Norma Foral 4/2015, de 25 de marzo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, Norma Foral 9/2014, de 11 de junio, del impuesto sobre los depósitos en las entidades de crédito, Norma Foral 7/2014, de 11 de junio, del impuesto sobre actividades de juego y Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

En relación con el Impuesto sobre Sociedades,



Ekonomia Itunaren 14., 15. eta 19. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eguneratu egiten da eragiketa-bolumenaren atalasea, eta 7 milioitik 10 milioira handitzen da, hauek zehazteko, egoitza fiskalaren arabera: aplikatu beharreko araudia eta ordainarazpen- zein egiaztapen- eskumenak. Horri lotuta, Foru Ogasunari esleitzen zaio subjektu pasiboei foru araudia aplikatzeko eta ikuskatzeko eskumena, baldin eta subjektu pasiboek egoitza fiskala lurralde erkidean badute, aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan badute eta ekitaldi horretako eragiketa guztien % 75 edo gehiago Euskadin egin badute. Azken erregela hori dela eta, gaineratu behar da salbuespen bat egin dela egoitza fiskala lurralde erkidean duten entitate-taldeei dagokienez. Ondorioz, haien parte diren subjektu pasiboek, beren aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan badute eta ekitaldi horretako eragiketa guzti-guztiak Euskadin egin badituzte, bakar-bakarrik foru araudiaren eta haren ikuskapen-eskumenaren pean egongo dira.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren barruan eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarrei dagokienez, Sozietateen gaineko Zergarako ezarritako aldaketen antzekoak aplikatu beharko dira.

Horrez gainera, aldatu egiten da establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei zerga hori ordainarazteko eta itzultzeko eskumena duen administrazioa, tributazioa eragiketa-bolumenaren arabera egiten denerako; hala, likidazioa egoiliarra ez den horren izenean aurkezten duen pertsonaren egoitza fiskala kontuan hartuta zehaztu beharrean, ordezkari hori ikuskatzeko eskumena lurraldeko zer administrazioek duen

de acuerdo con lo establecido en los artículos 14, 15 y 19 del Concierto Económico se actualiza la cifra umbral de volumen de operaciones pasando de 7 a 10 millones de euros a efectos de delimitar, en función del domicilio fiscal, la normativa aplicable y las competencias para la exacción y la comprobación. Adicionalmente, se atribuye a la Hacienda Foral la competencia para la aplicación de la normativa foral y para la inspección sobre los sujetos pasivos con domicilio fiscal en territorio común y cuyo volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiese excedido de 10 millones de euros siempre que hubieran realizado en el País Vasco al menos el 75 por 100 de todas sus operaciones en el ejercicio anterior. En relación con esta última regla, hay que añadir que se ha introducido una salvedad en relación con los grupos fiscales que tengan el domicilio fiscal en territorio común, de tal forma que aquellos sujetos pasivos que formen parte de los mismos cuyo volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 10 millones de euros, únicamente se sujetarán a la normativa foral y a su competencia inspectora, si en dicho ejercicio hubieran realizado en el País Vasco la totalidad de las operaciones.

Por lo que respecta al Impuesto sobre la Renta de no Residentes y en lo que afecta a no residentes con establecimiento permanente, son aplicables similares modificaciones a las establecidas en el Impuesto sobre Sociedades.

Además, se modifica la administración competente para la exacción y devolución a no residentes sin establecimiento permanente en el supuesto de tributación en volumen de operaciones, que pasa de determinarse en función del domicilio fiscal de la persona que presenta la liquidación en representación del no residente, a determinarse en función de la administración que ejerza la competencia inspectora sobre dicho representante.



kontuan hartuta zehaztuko da. Gainera, establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarrei eska dakiekeen loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga bereziaren ordainarazpenean, hau izango da lotura-puntua: saria irabazi duen loteriako dezimo, zatiki edo kupoia edo apustua erosi zen salmenta-puntua.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari dagokionez, zerga horri buruzko foru araua Ekonomia Itunaren 25. artikulua dakartzan aldaketetara egokitu behar da. Ituntze berriarekin, sortutako zergaren ordainarazpena foru aldundiari esleitzen zaio, eta gainera, bere araudia aplikatuko du, batetik, egoitza atzerrian daukaten zergadunek egindako eskuraketetan, baldin eta ondasunen eta eskubideen baliorik gehiena Bizkaiko lurraldean baldin badago, eta, bestetik, Espainiako lurraldean egoiliar ez direnen oinordetzetan, baldin eta oinordekoa Bizkaian bizi bada, zein atzerrian dauden ondasun higiezinekin Bizkaiko egoiliarren alde egindako dohaintzetan. Halaber aldatzen da foru ogasunek zer araudi aplikatu behar duten zehaztu ahal izateko kausatzaileak edo dohaintza-hartzaileak lurralde erkidean edo euskal lurraldean eman beharreko denbora kontuan hartzen duen erregela. Ondorioz, lurralde erkideko arauak aplikatuko dira baldin eta kausatzaileak edo dohaintza-hartzaileak egun gehiago pasa baditu lurralde erkidean aurreko bost urteetako denboraldian, zergaren sortzapenaren egunetik kontatuta.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, Sozietateen gaineko Zergan bezala eguneratzen da eragiketa-bolumenaren atalasea. Lurralde erkideko araudiaren peko tributu itundua denez, kasu honetan aldaketak bakarrik eragiten dio ordainarazpena egiteko lekua zehazteko eta egiaztapena zein ikerketa egiteko eskumenari. Era berean, eta ikuskapen-

Asimismo, en la exacción del gravamen especial sobre los premios de determinadas loterías y apuestas a no residentes sin establecimiento permanente se regula como punto de conexión el punto de venta donde se adquiriera el décimo, fracción o cupón de lotería o apuesta premiada.

En referencia al Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, se adapta la Norma Foral de dicho impuesto a las modificaciones operadas por el artículo 25 del Concierto Económico. Con la nueva concertación la exacción del impuesto devengado se atribuye a la Diputación Foral, que aplicará además su propia normativa, en las adquisiciones realizadas por contribuyentes residentes en el extranjero cuando la mayor parte del valor conjunto de los bienes y derechos transmitidos corresponda a los situados en Bizkaia, así como en las sucesiones de no residentes en territorio español cuando la persona heredera resida en Bizkaia y en las donaciones de bienes inmuebles situados en el extranjero a favor de residentes en Bizkaia. Asimismo, se modifica la regla temporal de permanencia de la persona causante o donataria en territorio común o vasco para determinar la normativa a aplicar por parte de las Haciendas Forales, de forma que se aplicarán las normas de territorio común cuando la persona causante o donataria hubiera permanecido un mayor número de días del periodo de los 5 años inmediatos anteriores, contados desde la fecha de devengo del impuesto.

Por lo que se refiere al Impuesto sobre el Valor Añadido, se actualiza de igual manera que en el Impuesto sobre Sociedades la cifra umbral de volumen de operaciones. Teniendo en cuenta que se trata de un tributo concertado con normativa de territorio común, el cambio en este caso solo afecta a la competencia para determinar el lugar de exacción y para la



eskumenari dagokionez, BEZaren barruan entitate-taldeei zabaltzen zaizkie aplikatu beharreko araudiari dagokionez talde fiskalei aplikatu behar zaien murrizketa eta egiaztatze eskumena.

Bestalde, zerga honi dagokionez, prozedura berri bat arautu da itzulitako kuotak erregularizatzeko, baldin eta beren jarduerari dagozkion ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak egin ohi diren unearen aurreko likidazio-aldietan zergadunak tributuzko administrazio baten ordainarazpen-eskumenaren mendean egon badira eta beste administrazio baten mendean ondoko likidazio-aldietan, edo baldin eta likidazio-aldi horietan tributuen ordainketaren proportzioa nabarmen aldatu bada administrazio bati edo besteari — erkideari edo foralari— ordaintzean. Horretarako, zergadunek, dagokion foru aginduaren bidez onesten den aitortura aurkeztuta, beren jarduerari dagozkion ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak egiten hasi aurreko likidazio-aldiei dagozkien administrazioetako tributazio-proportzioak erregularizatu beharko dituzte, kontuan hartuta administrazio bakoitzari aplikatzekoak zaizkien tributazio-portzentajeak, ondasun-emate edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoari dagozkionak; erregularizazio horrek ez du ondorio ekonomikorik izango zergadunentzat.

Kreditu-entitateetako Gordailuen gaineko Zergari eta Joko-jardueren gaineko Zergari dagokienez, dagozkion aldaketak sartu dira bi

comprobación e investigación. Asimismo y en relación con la competencia inspectora, la restricción aplicable a los grupos fiscales en cuanto a la determinación de la normativa aplicable y la competencia para la comprobación se extiende en el ámbito del IVA a los grupos de entidades.

Por otra parte y en relación con este mismo impuesto se ha regulado un nuevo procedimiento de regularización de las cuotas devueltas, para aquellos supuestos en que los y las contribuyentes hubieran estado sometidos a la competencia exaccionadora de una Administración tributaria en los períodos de liquidación anteriores al momento en que inicien la realización habitual de las entregas de bienes o prestaciones de servicios y a otra diferente en los períodos de liquidación posteriores, o cuando haya variado sustancialmente la proporción en la que tributan a las distintas Administraciones, común o forales, en los mencionados períodos de liquidación. Para ello, los y las contribuyentes mediante la presentación de la declaración que se apruebe por la orden foral correspondiente, deberán regularizar las proporciones de tributación a las distintas Administraciones correspondientes a los periodos de liquidación anteriores al momento en que se inicien la realización habitual de entregas de bienes o prestaciones de servicios a cada una de las Administraciones correspondientes a su actividad, de conformidad con los porcentajes de tributación referentes al primer año completo posterior al inicio de la realización habitual de las entregas de bienes o prestaciones de servicios correspondientes, y sin que dicha regularización tenga efectos económicos para los y las mismas.

En referencia al Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito y al impuesto sobre Actividades de Juego se han introducido las



tributu mota hauen lotura-puntuen erregularizazioari dagokionez.

Hala, Kreditu-entitateen Gordailuen gaineko Zergan zehazten da zer lotura-puntu aplikatu behar zaien merkaturatze-sistema ez-presentzialen bidez mantendutako gordailuei eta lurralde bati atxikitzeko modukoak ez diren beste batzuei; Joko-jardueren gaineko Zergan, berriz, lotura-puntu berezia aurrez ikusten da jokalariaen bizilekua zehaztea beharrezkoa ez den joko-modalitateetarako.

Azkenik, pertsona juridikoen eta nortasunik gabeko entitateen zein establezimendu iraunkorrik ez duten entitate ez-egoiliarren identifikazio fiskaleko zenbakia esleitu eta ezeztatzeko eskumenaren arloan, delitu fiskalaren arloan eta administrazio batzuek batera dihardutenean ordainarazpena eta ikuskapena egiteko eskumenen koordinazioaren arloan, doikuntza batzuk egiten dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorren testuan.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru entitateen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan ezarritakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta generoaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru-arau honekin batera.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

adaptaciones pertinentes en la regulación de los puntos de conexión de estas dos figuras tributarias.

Así, en el Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito se especifica el punto de conexión aplicable a los depósitos mantenidos mediante sistemas de comercialización no presenciales y otros no susceptibles de territorialización y en el Impuesto sobre Actividades de Juego se prevé un punto de conexión específico para las modalidades de juego en las que no sea exigible la identificación de la residencia del jugador o jugadora.

Finalmente, en el ámbito de la distribución competencial en la asignación y revocación del NIF de personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica así como de entidades no residentes sin establecimiento permanente, del delito fiscal y de la coordinación de las competencia exaccionadoras e inspectoras cuando concurren varias administraciones, se introducen ajustes en el texto correspondiente a la Norma Foral General tributaria.

En cumplimiento de lo dispuesto en los apartados 1 y 3 del artículo 55 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia, acompañan a la presente Norma Foral el informe de memoria económica, así como el informe de evaluación de impacto de género.

Asimismo, se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.



1. artikulua. 11/2013 Foru Araua, abenduaren 5koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa.

Honako aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan:

Bat. Berridatzi egiten dira 2. artikuluko 1, 2, 3. eta 5. zenbakiak, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Foru arau honetan xedatutakoa zerga-egoitza Bizkaian duten zergadunei aplikatuko zaie.

Hala ere, aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko inguruabar hauetan dauden zergadunei:

- Aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.

-Aurreko ekitaldi horretako eragiketa-bolumenaren %75 edo gehiago lurralde erkidean egin badute, edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetako batean edo bietan egin badituzte.

2. Zerga-egoitza Araban edo Gipuzkoan duten zergadunei ere foru arau honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, honako baldintza hauek gertatuz gero:

- Aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.

- Aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumenaren % 75 edo gehiago ez badute lurralde erkidean

Artículo 1. Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades.

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades:

Uno. Se da nueva redacción a los apartados 1, 2, 3 y 5 del artículo 2, que quedan redactados en los siguientes términos:

“1”. Lo dispuesto en esta Norma Foral será de aplicación a los contribuyentes que tengan su domicilio fiscal en Bizkaia.

No obstante se exceptúa de lo dispuesto en el párrafo anterior a aquellos contribuyentes en los que concurran las dos siguientes circunstancias:

- Su volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 10 millones de euros.

- En dicho ejercicio, hubieran realizado en territorio común el 75 por 100 o más de su volumen de operaciones, o en otro caso, el total de las operaciones realizadas en el País Vasco se hubiera realizado en uno o en los otros dos Territorios Históricos.

“2”. También será de aplicación lo dispuesto en esta Norma Foral a los contribuyentes que tengan su domicilio fiscal en Álava o Gipuzkoa, siempre que se cumplan las siguientes condiciones:

- Su volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 10 millones de euros.

- En dicho ejercicio, no hubieran realizado en territorio común el 75 por 100 o más de su



egin.

- Ekitaldi horretan Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Bizkaian egin badituzte, edo, eragiketok Bizkaian eta zerga-egoitza ez duten beste lurralde historikoan egin dituztela ere, eragiketa-bolumenaren proportzio handiena Bizkaian egin badute.

3. Zerga-egoitza lurralde erkidean duten zergadunei ere foru arau honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, honako hiru baldintza hauek betetzen dituztenean:

- Aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.

- Eragiketa-bolumenaren % 75 edo gehiago Euskadin egin badute.

-Bizkaian beste lurralde historiko bakoitzean baino eragiketa-bolumenaren proportzio handiagoa egin badute.»

«5. Foru arau honetan ezarritako talde fiskalen tributazio-araubidea aplikatu ahal izateko, bi baldintza hauek bete behar dira: batetik, entitate nagusia, aurreko lehen hiru zenbakietan xedatutakoarekin bat etorriz, foru arau honen mende egon behar da; bestetik, entitate filial guztiei Sozietateen gaineko Zergari buruzko lurralde historikoetako bateko arautegia aplikatu behar zaie.

Edonola ere, 3. zenbakian adierazitako kasuetan, beharrezkoa izango da talde fiskalaren parte diren eta egoitza fiskala lurralde erkidean duten entitateek beren eragiketa-bolumenaren % 100 Euskadin eginda edukitzea foru arau honetan ezarritakoa

volumen de operaciones.

- En dicho ejercicio, el total de las operaciones realizadas en el País Vasco se hubiera realizado en Bizkaia, o bien, en caso de haberse realizado en Bizkaia y en el otro Territorio Histórico en el que no está su domicilio fiscal, la proporción mayor de su volumen de operaciones se hubiera realizado en Bizkaia.

“3”. Asimismo será de aplicación lo dispuesto en esta Norma Foral a los contribuyentes que tengan su domicilio fiscal en territorio común, siempre que se cumplan las tres siguientes condiciones:

- Su volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 10 millones de euros.

- Hubieran realizado el 75 por 100 o más de su volumen de operaciones en el País Vasco.

- Hubieran realizado en Bizkaia una proporción mayor del volumen de sus operaciones que en cada uno de los otros Territorios Históricos.”

“5”. El régimen de tributación de los grupos fiscales regulado en esta Norma Foral será de aplicación a aquéllos en los que a la entidad dominante, de conformidad con lo dispuesto en los apartados 1 a 3 anteriores, le sea de aplicación esta Norma Foral y siempre que a todas las entidades dependientes les sea de aplicación la normativa del Impuesto sobre Sociedades de cualquiera de los Territorios Históricos.

No obstante, en los supuestos a los que se refiere el apartado 3 anterior será preciso que las entidades que formen parte del grupo fiscal y tengan su domicilio fiscal en territorio común hubieran realizado el 100 por 100 de su volumen de operaciones en el País Vasco para



aplikatu ahal izateko.

Foru arau honen 85. artikuluko 1. zenbakiko bigarren paragrafoan ezarritako baldintzetan eraturako talde fiskalen kasuan, talde horiei foru arau honetan ezarritako tributazio-araubidea aplikatuko zaie baldintza hauek biak betez gero: batetik, aurreko ekitaldian talde fiskalean eragiketa-bolumen handiena izan duen entitateari foru arau honetan ezarritakoa izan behar zaio aplikagarri, eta, bestetik, taldeko gainerako entitateei Sozietateen gaineko Zergari buruzko lurralde historikoetako bateko arautegia izan behar zaie aplikagarri, betiere kontuan hartuta aurreko zenbakian xedatutakoa.

Zenbaki honetan ezarritakoaren ondorioetarako, lurralde erkideko araubidearen mende dauden entitateak talde fiskaletik kanpo daude.»

Bi. Berridatzi egiten da 3. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

### «3. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

1. Zergaren ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio:

a) Ordainarazpena Aldundiari eksklusiboki dagokio zergadunak zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badu eta, horretaz gain, aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan ez bada.

b) Ekitaldian zehar Bizkaian egindako eragiketa-bolumenaren proportzioan, aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.»

2. Talde fiskalek, betiere, Bizkaiko Foru Aldundiari tributatu diote, lurralde horretan egindako eragiketa-bolumenaren arabera.

que les resulte de aplicación esta Norma Foral.

En el supuesto de grupos fiscales constituidos en los términos establecidos en el segundo párrafo del apartado 1 del artículo 85 de esta Norma Foral, les será de aplicación el régimen de tributación establecido en esta Norma Foral si a la entidad del grupo con mayor volumen de operaciones realizado en el ejercicio anterior le resulta de aplicación lo dispuesto en esta Norma Foral y siempre que a todas las demás entidades que formen parte del grupo les sea de aplicación la normativa del Impuesto sobre Sociedades de cualquiera de los Territorios Históricos, teniendo en cuenta lo dispuesto en el párrafo anterior.

A los efectos de lo dispuesto en este apartado, se considerarán excluidas del grupo fiscal las entidades que estuvieran sujetas a normativa de territorio común.”

Dos. Se da nueva redacción al artículo 3, que queda redactado en los siguientes términos:

### “Artículo 3. Exacción del impuesto.

1. Corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia la exacción del Impuesto:

a) En exclusiva, cuando el contribuyente tenga su domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia y su volumen de operaciones en el ejercicio anterior no hubiese excedido de 10 millones de euros.

b) En proporción al volumen de operaciones realizado en Bizkaia durante el ejercicio, siempre que el volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiere excedido de 10 millones de euros”

2. Los grupos fiscales tributarán, en todo caso, a la Diputación Foral de Bizkaia en función del volumen de operaciones realizado en Bizkaia.





Ondorio horietarako, Bizkaian egindako eragiketa-bolumena talde fiskaleko sozietate bakoitzak lurralde horretan egiten duen eragiketen batura izango da, talde barruan egin beharreko ezabatzeak egin aurretik.»

Hiru. Berridatzi egiten da 45. artikuluko 6. zenbakiko e) letra; honela geratzen da idatzita:

«e) Beste alderdi lotuak egindako eragiketak merkatuko balio normalaren arabera balioesteko eskumena beste Zerga Administrazio bati dagokionean, prozedura hasi dela jakinarazi behar zaio administrazio horri, dagozkion ondorioetarako, salbu eta aplikatzekoa bada Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 114. bis artikuluan xedatutakoa; kasu horretan, manu horretan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.»

Lau. Berridatzi egiten da 100. artikuluko 3. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Talde fiskala azkentzen bada, zerga-baterakuntzaren araubidea galtzen bada edo entitateren bat talde fiskaletik irteten bada egin beharko diren aitorten osagarriak aurkezteko egutegiko hogeita bost egun daude; epe hori, dena dela, azkentzea, galera edo banatzea eragin zuten arrazoiak eman ziren egunetik sei hilabete igarotakoan hasiko da.»

Bost. Berridatzi egiten da 132. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

**«132. artikulua. Zergaren ikuskapena.**

1. Zergaren ikuskapena Bizkaiko Foru

A estos efectos, el volumen de operaciones realizado en Bizkaia estará constituido por la suma o agregación de las operaciones que cada una de las entidades integrantes del grupo fiscal efectúen en este territorio antes de las eliminaciones intergrupo que procedan.»

Tres. Se da nueva redacción a la letra e) del apartado 6 del artículo 45, que queda redactada en los siguientes términos:

“e) En los supuestos en que la competencia para practicar la valoración por el valor normal de mercado de las operaciones realizadas por la otra parte vinculada corresponda a otra Administración tributaria, se comunicará a la misma la iniciación del procedimiento a los efectos que resulten oportunos, salvo cuando resulte de aplicación lo dispuesto en el artículo 114.bis de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, en cuyo caso se seguirá el procedimiento previsto en el citado precepto.”

Cuatro. Se da nueva redacción al apartado 3 del artículo 100, que queda redactado en los siguientes términos:

“3. Las declaraciones complementarias que deban practicarse en caso de extinción del grupo fiscal, pérdida del régimen de consolidación fiscal o separación de entidades del grupo fiscal, se presentarán dentro de los veinticinco días naturales siguientes a los seis meses posteriores al día en que se produjeron las causas determinantes de la extinción, pérdida o separación.”

Cinco. Se da nueva redacción al artículo 132, que queda redactado en los siguientes términos:

**“Artículo 132. Inspección del Impuesto.**

1. La inspección del Impuesto se realizará por la



Aldundiak egingo du honako kasu hauetan:

a) Zergadunaren zerga-egoitza Bizkaian dagoenean; salbuespena: zergadunaren eragiketa-bolumena, aurreko ekitaldian, 10 milioi euro baino gehiago izan bada eta ekitaldi horretako eragiketa-bolumenaren % 75 gutxienez lurralde erkidean egin badu edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste lurralde historikoetako batean edo bietan egin baditu.

b) Zergadunaren zerga-egoitza Araban edo Gipuzkoan egonez gero, baldin eta zergadunaren eragiketa-bolumena, aurreko ekitaldian, 10 milioi euro baino gehiago izan bada eta ekitaldi horretako eragiketa-bolumenaren % 75 gutxienez lurralde erkidean egin ez badu eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Bizkaian egin baditu (edo Bizkaian eta zerga-egoitzarik ez duen beste lurralde historiko batean egin baditu, haien eragiketa-bolumenaren proportziorik handiena Bizkaian egin badu).

c) Zergadunak lurralde erkidean badauka zerga-egoitza, aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada, ekitaldi horretan eragiketen % 75 edo gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan egin badu, eta, gainera, Bizkaian egin duen eragiketa-bolumenaren proportzioa gainerako lurralde historikoetan egindakoa baino handiagoa bada.

2. Ikuskapenak Bizkaiko Lurralde Historikoaren araudiari egokituko zaizkio, ezertan eragotzi gabe gainerako administrazioen lankidetzat.

Ikuskapenek administrazio bati baino gehiagori dagokion zorra edo itzulketa eragingo balute, kobrua edo ordainketa Bizkaiko

Diputación Foral de Bizkaia cuando:

a) El contribuyente tenga su domicilio fiscal en Bizkaia, excepto en relación con los contribuyentes cuyo volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 10 millones de euros y en dicho ejercicio hubieran realizado en territorio común el 75 por 100 o más de su volumen de operaciones, o en otro caso, el total de las operaciones realizadas en el País Vasco se hubiera realizado en uno o en los otros dos Territorios Históricos.

b) El contribuyente tenga su domicilio fiscal en Álava o Gipuzkoa, siempre que su volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 10 millones de euros, en dicho ejercicio no hubieran realizado en territorio común el 75 por 100 o más de su volumen de operaciones, y en ese mismo ejercicio, el total de las operaciones realizadas en el País Vasco se hubiera realizado en Bizkaia, o bien, en caso de haberse realizado en Bizkaia y en el otro Territorio Histórico en el que no está su domicilio fiscal, la proporción mayor de su volumen de operaciones se hubiera realizado en Bizkaia.

c) El contribuyente tenga su domicilio fiscal en territorio común, su volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 10 millones de euros, en dicho ejercicio hubiera realizado el 75 por 100 o más de sus operaciones en el País Vasco y en ese mismo ejercicio realice en Bizkaia una proporción mayor del volumen de sus operaciones que en cada uno de los otros Territorios Históricos.

2. Las actuaciones inspectoras se ajustarán a la normativa del Territorio Histórico de Bizkaia, sin perjuicio de la colaboración del resto de las Administraciones.

Si como consecuencia de las actuaciones inspectoras resultase una deuda a ingresar o una cantidad a devolver que corresponda a



administrazioak berak egingo luke, ezertan eragotzi gabe beste administrazio horien artean egin beharreko konpentsazioak. Ikuskapen-organoek beren jardunaren emaitzen berri emango diete eragindako gainerako administrazioei.

3. Ikuskapen-jarduketak beste administrazio batek eginez gero, egintzat joko dira, Bizkaiko Foru Aldundiak egiaztapenaren eta ikerketaren arloan dauzkan ahalmenak gorabehera, eta Aldundiaren jarduketek ez dute edukiko ondorio ekonomikorik zergadunentzat administrazio eskudunetako organoen jarduketan ondoriozko behin betiko likidazioei dagokienez.

Zehatzago, Bizkaiko Foru Aldundiak ikuskapen-eskumena ez duenean, ikuskatu ahal izango ditu eragiketa-bolumenaren kalkuluan eragina izan dezaketen eragiketa guztiak, edonon egin badira ere, baina ikuskatzeko eskumena duen administrazioari haien berri emateko soilik.

4. Administrazio eskudunak egiaztapenetan finkatutako proportzioak likidatutako betebeharrak bete beharko ditu zergadunak. Nolanahi ere, administrazioek, gero, behin betikoak adostu ditzakete.

5. Foru arau honen VI. tituluko VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera tributatzeko duten talde fiskalen zergaren ikuskapena egitea Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio baldin eta talde horretako entitate nagusia ikuskatzeko eskumena Aldundiari berari badagokio, aurreko

varias Administraciones, el cobro o el pago correspondiente serán efectuados por la Administración vizcaína, sin perjuicio de las compensaciones que entre aquéllas procedan. Los órganos de la inspección comunicarán los resultados de sus actuaciones al resto de las Administraciones afectadas.

3. Si las actuaciones inspectoras se realizan por administración diferente de la Diputación Foral de Bizkaia, las mismas se entenderán realizadas sin perjuicio de las facultades que corresponden a esta Diputación Foral en materia de comprobación e investigación, sin que estas actuaciones puedan tener efectos económicos frente a los contribuyentes en relación con las liquidaciones definitivas practicadas como consecuencia de actuaciones de los órganos de las Administraciones competentes.

En particular, cuando la Diputación Foral de Bizkaia no ostente la competencia inspectora, podrá verificar todas aquellas operaciones que, con independencia de donde se entendieran realizadas, pudieran afectar al cálculo del volumen de operaciones, a los solos efectos de comunicar lo actuado a la Administración inspectora competente.

4. Las proporciones fijadas en las comprobaciones por la Administración competente surtirán efectos frente al contribuyente en relación con las obligaciones liquidadas, sin perjuicio de las que, con posterioridad a dichas comprobaciones, se acuerden con carácter definitivo entre las Administraciones.

5. La inspección del Impuesto correspondiente a los grupos fiscales que tributen conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título VI de esta Norma Foral corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia cuando la entidad dominante esté sometida a la competencia inspectora de la



1. zenbakian xedatutakoaren arabera.

Edonola ere, 3. zenbakiko c) letran adierazitako kasuetan, beharrezkoa izango da talde fiskalaren parte diren eta egoitza fiskala lurralde erakidean duten entitateek beren eragiketa-bolumenaren % 100 Euskadin eginda edukitzea Bizkaiko Foru Aldundiaren ikuskapen-eskumenaren pean egoteko.

Foru arau honen 85. artikuluko 1. zenbakiko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera eraturako talde fiskal baten kasuan, talde fiskalaren ikuskapena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio baldin eta Aldundia bada talde horretan aurreko ekitaldian talde fiskalean eragiketa-bolumen handiena izan duen entitatea ikuskatzeko administrazio eskuduna, aurreko 1. zenbakian xedatutakoaren arabera, goiko paragrafoan xedatutakoa kontuan hartuta.»

2. artikulua. *12/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoa.*

Honako aldaketa hauek egiten dira Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauan:

Bat. Berridatzi egiten da 1. artikuluko 2. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Foru arau honetan xedatzen dena honako hauei aplikatuko zaie:

a) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoei edo entitateei, baldin eta, establezimendu iraunkorrik gabe, errentak

misma conforme a lo previsto en el apartado 1 anterior.

No obstante, en los supuestos a los que se refiere la letra c) del apartado 1 anterior será preciso que las entidades que formen parte del grupo fiscal y tengan su domicilio fiscal en territorio común hubieran realizado el 100 por 100 de su volumen de operaciones en el País Vasco para que estén sometidas a la competencia inspectora de la Diputación Foral de Bizkaia.

En el supuesto de los grupos fiscales constituidos en los términos establecidos en el segundo párrafo del apartado 1 del artículo 85 de esta Norma Foral, la inspección del grupo fiscal corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia en caso de que sea la Administración competente para la inspección de la entidad del grupo con mayor volumen de operaciones realizado en el ejercicio anterior de conformidad con lo previsto en el apartado 1 anterior, teniendo en cuenta lo dispuesto en el párrafo anterior.”

Artículo 2. *Norma Foral 12/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de No Residentes.*

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 12/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de No Residentes:

Uno. Se da nueva redacción al apartado 2 del artículo 1, que queda redactado en los siguientes términos:

“2. Lo dispuesto en esta Norma Foral será de aplicación:

a) A las personas físicas o entidades no residentes en territorio español que, sin mediación de establecimiento permanente,



lortzen badituzte Bizkaiko Lurralde Historikoan, foru arau honen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoei edo entitateei, helbidea Bizkaian duen establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen badituzte. Foru arau honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko, ordea, honako baldintza bi hauek betetzen dituztenei:

- Aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.

-Aurreko ekitaldi horretako eragiketa-bolumenaren %75 edo gehiago lurralde erkidean egin badute, edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetako batean edo bietan egin badituzte.

c) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoei edo entitateei, helbidea Araban edo Gipuzkoan duen establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen badituzte eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.

- Aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumenaren % 75 edo gehiago ez badute lurralde erkidean egin.

- Ekitaldi horretan Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Bizkaian egin badituzte, edo, eragiketok Bizkaian eta zerga-egoitza ez duten beste lurralde historikoan egin dituztela ere, eragiketa-bolumenaren proportzio handiena Bizkaian egin badute.

d) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoei edo entitateei, helbidea

obtengan rentas en el Territorio Histórico de Bizkaia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 13 de esta Norma Foral.

b) A las personas físicas o entidades no residentes en territorio español que obtengan rentas mediante establecimiento permanente domiciliado en el Territorio Histórico de Bizkaia, excepto aquéllos en los que concurren las dos siguientes circunstancias:

- Su volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 10 millones de euros.

- En dicho ejercicio, hubieran realizado en territorio común el 75 por 100 o más de su volumen de operaciones, o en otro caso, el total de las operaciones realizadas en el País Vasco se hubiera realizado en uno o en los otros dos Territorios Históricos.

c) A las personas físicas o entidades no residentes en territorio español que obtengan rentas mediante establecimiento permanente domiciliado en los Territorios Históricos de Álava o de Gipuzkoa, siempre que se cumplan las siguientes condiciones:

- Su volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 10 millones de euros.

- En dicho ejercicio, no hubieran realizado en territorio común el 75 por 100 o más de su volumen de operaciones.

- En dicho ejercicio, el total de las operaciones realizadas en el País Vasco se hubiera realizado en Bizkaia, o bien, en el caso de haberse realizado en Bizkaia y en el otro Territorio Histórico en el que no está su domicilio fiscal, la proporción mayor de su volumen de operaciones se hubiera realizado en Bizkaia.

d) A las personas físicas o entidades no residentes en territorio español que obtengan



lurralde erkidean duen establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen badituzte eta honako hiru baldintza hauek betetzen badituzte:

- Aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.

- Aurreko ekitaldian eragiketa-bolumenaren % 75 edo gehiago Euskadin egin badute.

-Bizkaian beste lurralde historiko bakoitzean baino eragiketa-bolumenaren proportzio handiagoa egin badute.

Edonola ere, d) letra honetan adierazitako kasuetan, beharrezkoa izango da talde fiskalaren parte diren eta beren establezimendu iraunkorraren egoitza fiskala lurralde erakidean duten zergadunek beren eragiketa-bolumenaren % 100 Euskadin eginda edukitzea foru arau honetan ezarritakoa aplikatu ahal izateko.

Bi. Berridatzi egiten da 1. artikuluko 3. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Zergadunak —Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko araudian ezarritakoa betetzeagatik— Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan tributatzea hautatzen duenean, lurralde historiko honetako araudia hartuko da kontuan aukerako araubidea aplikatzeko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan eskuratu duen errenta Espainian lortu den errenta osoaren zatirik handiena denean, eta, EAEko errentan, Bizkaian lortutakoa handiagoa denean beste lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoa baino.

Zergadunak zerga-itzulketarako eskubidea duenean foru aldundi honek egingo dio

rentas mediante establecimiento permanente domiciliado en el territorio común, siempre que se cumplan las tres siguientes circunstancias:

-Su volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 10 millones de euros

-Hubieran realizado en dicho ejercicio el 75 por 100 o más de su volumen de operaciones en el País Vasco.

- Hubieran realizado en Bizkaia una proporción mayor del volumen de operaciones que en cada uno de los otros Territorios Históricos.

No obstante, en los supuestos a los que se refiere esta letra d) será preciso que los contribuyentes que formen parte de un grupo fiscal y tengan el domicilio fiscal de su establecimiento permanente en territorio común hubieran realizado el 100 por 100 de su volumen de operaciones en el País Vasco para que les resulte de aplicación esta Norma Foral.

Dos. Se da nueva redacción al apartado 3 del artículo 1, que queda redactado en los siguientes términos

“3. Cuando el contribuyente ejercite la opción de tributación por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, por cumplir los requisitos previstos en la normativa reguladora del Impuesto sobre la Renta de No Residentes, a efectos de la aplicación del régimen opcional, se tendrá en cuenta la normativa de este Territorio Histórico, siempre y cuando la renta obtenida en el territorio vasco represente la mayor parte de la totalidad de renta obtenida en España y, de aquella, la obtenida en Bizkaia sea superior a la obtenida en cada uno de los otros dos Territorios Históricos.

En el caso de que el contribuyente tenga derecho a devolución, ésta será satisfecha por



itzulketa, errentak Espainiako lurraldearen barruan non lortu dituen kontuan hartu gabe.»

Hiru. Berridatzi egiten da 2. artikuluko 1. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Zergaren ordainarazpena kasu hauetan dagokio Bizkaiko Foru Aldundiari:

a) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo entitateek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak direnean, baldin eta errentok Bizkaiko Lurralde Historikoan lortutakotzat jotzen badira, foru arau honen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Lurralde espainiarrean egoiliar ez diren pertsona fisiko edo entitateek establezimendu iraunkorraren bitartez lortutako errentak badira:

a') Ordainarazpena Aldundiari bakarrik dagokio subjektu pasiboak zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badu eta, horretaz gain, aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan ez bada.

b') Ordainarazpena Aldundiari bakarrik dagokio subjektu pasiboak soil-soilik Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduten badu eta, gainera, aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumen osoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada, zerga-egoitza non duen alde batera utzita.

